



GORPUTZ-BEIRAKAREN BARNEKO INJEKZIOAREN ONDORENGO EBAKUNTZA OSTEKO ZAINTZAK

Tratamendua egin dizute farmako antiangiogeniko batekin (begi barruan odol-hodi anomaloak sortzea eragotzi egiten du farmako horrek, edo leheneratu egiten ditu hodiak).

Injekzioaren ondoren, baliteke hondarra, erresumina duzulako sentipena izatea, ikusmen lausoa nabaritzea, edo orban beltz bat ikustea. Normala izaten da ondoeza sentitzea injekzioa eta berehala. Hori arintzeko, hartu parazetamola (500 mg) zortzi orduetik behin.

Injekzioaren osteko 48 orduetan, baldin eta **honako sintoma hauetakoren bat nabaritzen baduzu**, 8etatik 15:00etara arteko orduetegian Oftalmologiako kontsultako harrerara joan beharko zara, eta Santiagoko larrialdietako zerbitzura, berriz, orduetegi horretatik kanpo:

- Min handia sumatzen duzu, kirurgiaren ondoko 24-48 orduetan ez bezala.
- Ikusmenaren bat-bateko murrizketa; lehen ez zeneuzkan orbanak edo lerroak agertzea.
- Jariakin ugariak edo horixkak.

Hurrengo egun edo asteetan, hobera egingo du ikusmenak, pixkanaka.

INJEKZIOAREN ONDORENGO LEHEN ASTEAN:

- Saiatu animaliarik ez ukitzen eta landako lanik ez egiten.
- Ibili kerik eta hautsik gabeko giroetan.
- Ez bainatu igerilekuan eta itsasoan.
- Ez makillatu begiak.

Informazio hau orokorra da, eta kasu bakoitzean bete beharreko jarraibideak emango dizkizute.